

**IBILGAILU MOTORDUNENTZAKO HORNIDURA-INSTALAZIOAK EZARTZEKO  
PLAN BEREZIA  
ELEren IRISMEN DOKUMENTUA.**

Planaren/proiektuaren izena: **Ibilgailu motordunentzako hornidura-instalazioak ezartzeko plan berezia**  
Eragin eremua: **Basauri udalerrria**  
Teknikarien izenak: **Arantza Aranburu eta Mikel Bagan (udaletik)**  
**Markel Bollar Arrate (erredaktore-taldetik)**  
Batzordearen izena: **Ez da eratu**

IBILGAILU MOTORDUNENTZAKO HORNIDURA-INSTALAZIOAK EZARTZEKO PLAN BEREZIAren helburua da:

Gizarteak nabarmen eskatzen du horrelako jarduerak arautzea, eta Udalak uste du hori bideratu daitekeela plangintza-ahalmenaren bidez. Plana idatzi da Basauriko udalerrian ibilgailu motordunentzako erregaia edo energia-iturriak hornitzeko instalazioak ezartzeko baldintzak arautzeko. Horren bidez, jarduera ingurunean behar bezala integratzen dela bermatzeko eta eremu hauetan izan daitezkeen eragin negatiboak mugatzeko beharrezkoak diren baldintzak finkatu nahi dira.

Plan/proiektu horrek tokiko biztanleria kopuruan/bisitari kopuruan/egoera soziolinguistikoa izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea erabaki du Basauriko Udalak. Horregatik, plan/proiektu horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkulua egin da.

Planak ez du eraginik eukingo biztanleriaren kopuruan, ez tokiko bisitari kopuruan eta ez du egoera soziolinguistikoa eragin nabarmenik izango.

HAPOnen aldaketa honen bidez aurreikus daitezkeen biztanle/bisitari berrien kopurua 7koa da. Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:

Euskararen proiektzio-indizea:	0,00
Hauskortasun-indizea:	0,67
Bilakaera-indizea:	2,00

Emaitza horiek aintzat hartuta, egitasmo honek gaineko hizkuntza inpaktuaren azterlana EZ DU egin behar.

Irismen-dokumentu hau planaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

Hirigintza Arloko Teknikaria Mikel Bagan	Alkatea Asier Iragarri	Euskara Arloko Teknikaria Arantza Aranburu
---	---------------------------	---

**OHARRAK:**

- Biztanle berrien kopurua era honetan kalkulatu da:
  - Gasolindegia bakoitzak 3.000.000 litro erregai inguru saltzen ditu urtero. Batz besteko banakako hornikuntza 25 litrokoa izango dela ematen da. Beraz:  
 $3.000.000 \text{ l} / 25 / 365 = 329$  auto eguneko gasolindegia bakoitzerako x 2 balizko kokapen = 658 auto eguneko
  - Eman daiteke hauetatik %20 direla udalerrri kanpokoak, beraz:  
 $658 \times 0,20 = 132$  X 2 (auto bakoitzeko)= 234 kanpoko bisitari egunero. Horiek 5 minutuz baitaude gasolindegian eta merkatal gune batean bisita osoak direla esateko gutxienez 3 orduz ematen badira biztanlearekin konparatzeko =  $234/36 = 7$  biztanle berri GUZTIRA

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): <b>8ac0b2b38bc5aae53f47f5b8c0780200f28e0492</b> Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: <b>FIRDOC-202101326</b> <a href="https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do">https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do</a>	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
<b>MIKEL BAGAN</b>	<b>27/04/2021 08:11:10</b>
<b>ARANTZA ARANBURU OLABARRI</b>	<b>27/04/2021 13:44:44</b>
<b>ASIER IRAGORRI BASAGUREN</b>	<b>28/04/2021 08:33:36</b>

